



Aireko trafikoak gora egiten jarraitzen du EAEn

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak
Urte bakoitzeko urtarrila. Milakoak




Iturria: AENA.

Urtarrilean, 400.000 pertsona baino gehiagok bidaiatu zuten EAeko aireportuetatik. Serie historiko osoan hilabete horretan lortu den baliorik handiena izan da aurten-goia. Aurreko urteko hileko beraren aldean, hazkundea %9,8 izan da.

Kontsumoko prezioak %3,5 igo ziren urtarrilean

EAeko kontsumo prezioen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

Urtarrileko KPIaren urteko aldakuntza tasa %3,5ean kokatu zen EAEn, aurreko hilekoko baino lau hamarren gorago. Bilakaera hori elektrizitatearen prezioen igoeraren isla da. Halaber, azpiko inflazio tasa %3,8an kokatu zen, hau da, 2022ko martxotik izan duen tasarik txikienetan, eta inflazio globalarekiko diferentziala hiru hamarrekoa baino ez da.



EAEko merkataritzaren salmenta %1,8 gutxitu zen

Txikizkako merkataritza
Urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoa. Indizea




Iturria: Eustat.

2023ko laugarren hiruhilekoan, salmentek %1,8 egin zuten behera, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Era berean, urte osoko batez bestekoan ere bilakaera negatiboa jaso zen, %1,6ko jaitsierarekin, handizkako merkataritzan izandako beherakadak (-%4,7) eraginda. Aitzitik, ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa biltzen dituen sektoreak (%5,9) zein txikizkako merkataritzak (%0,9) gora egin zuten.

Europako IPIa hobera egin zuen abenduan

Euroguneko industria ekoizpena (IPI)
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eurostat.

Eurostatek berriki argitaratutako datuen arabera, **euroguneko IPI indizea %1,0 hazi zen abenduan, aurreko urteko aldi beraren aldean.** Beraz, aurreko hilabeteetan erregistro negatiboak izan ondoren (-%5,8 urrian eta -%5,2 azaroan), urtea hobekuntza nabarmenarekin amaitu zen.